

MANUEL LEKUONA Saria
Premio MANUEL LEKUONA




**EUSKO
IKASKUNTZA**

90

1918-2008

**Sabin
Salaberri
Urzelai**



25

Egilea: Josemari Velez de Mendizabal



Remigio Mendibururen brontzeko eskultura
Escultura en bronce de Remigio Mendiburu

VELEZ DE MENDIZABAL AZKARRAGA, Josemari

Sabin Salaberri Urzelai / Josemari Velez de Mendizabal. – Donostia : Eusko Ikaskuntza, 2008. – 141 or. : ir. ; 21 cm. – (Manuel Lekuona Saria = Premio Manuel Lekuona; 25). – Itzulpena euskaratik gaztelerara Diego Martiartu. – Manuel Lekuona Saria 2007.

ISBN: 978-84-8419-145-2

1. Sabin Salaberri Urzelai – biografia 2. Bibliografía – Sabin Salaberri Urzelai
I. Eusko Ikaskuntza II. Serie III. Tit.

Hauen laguntzarekin: Arabako Diputazio Forala, Bizkaiko Diputazio Forala,
Gipuzkoako Diputazio Forala, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza,
Hezkuntza eta Zientzia Ministerioa.

EUSKO IKASKUNTZA - SOCIEDAD DE ESTUDIOS VASCOS

Miramar Jauregia - Miraconcha, 48 - 20007 Donostia

Internet: <http://www.eusko-ikaskuntza.org> - E-mail: ei-sev@eusko-ikaskuntza.org

ISBN: 978-84-8419-145-2

LG: SS-490-2008

Fotokonposaketa eta inprimaketa: Michelena artes gráficas


Sabin Salaberri Urzelai

Sabin Iñaki Bernarta jarri zitzaion bataio liburuan, gurasoek eta ama-aita pontekoek hala aukeratuta. Sendi abertzale batean munduratu, Sabin nondik datorcion asmatzea ez da ariketa zaila. Bernarta zertatik datorren ulertuko dugu, umea abuztuaren 20 batean jaio zela adierazi bezain laster; San Bernardo egunean, kristau egutegiari dagokionez. Iñakiren nondik norakoa, aldiz, Lola eta Jose Mari Azkarraga umearen ama-aita pontekoen erreguan dago. Esan dezagun azkenik, 1934 urtean gaudela, Arabako Aramaion.

Sabin Salaberri Urzelairen jaiotza kokatu dugu, beraz, eta orain haren bizitzan barrena abiatuko gara, umearen hurrengo urratsak nolakoak izan ziren jakin dezagun. Bizitza luzexka –ziur nago berari laburra iruditu zaiola– eta oparoa izan du orain arte Sabinekin eta Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona Saria 2007 edizioan eskuratzeagatik eskainitako biobibliografia txiki honetan ezingo ditut, inondik ere, bere meritu guztiak islatu. Bedi garbi, baina, ahaleginak debozio osoarekin egin ditudala, eta beude orri hauek balizko beste lantegi biografiko baten aurrerapen gisa.

Hamar seme-alaba izan zituzten Joxe “Karnizero” Salaberri eta Kattalin “Montero” Urzelai senar-emazteak. Gazteena Sabin izan zen, aurretik Teodosia, Frantzisko, Joxe Alejandro, Juan, Jose Antonio, Gerardo, Miguel, Asuncion eta Consuelo zirelarik. Aitari izenordea bere aitarengandik –Anizeto aitxajauna, arrasatearra¹– zetorkion. Aramaioko harakina zen. Negozioetarako abila, ostatu

1. Anizeto Salaberri Oliasen aitona, Agustin Olias, Navalcarnerokoa zen jaiotzez. Joxepa Bikuñarekin Eskoriatzan ezkontuta, 1860ko Aramaioko zentsuan agertzen da, harakineko ofizioarekin.



izandako etxe bat erosi eta bertan denda txiki bat jarri zuen. Anizetok esan ohi bide zuenez, ostatu hartan Carlos VII karlisten erregeak lo egin zuen XIX. amaieran eta, txantxa klabeen gehitzen zuen, logelara sartzen ziren karlista guztiak belauniko egin behar zutela, txapela erantziz. Behin, Sabinen anaia bati Arrasateko karlista batek seriotasun osoz galdegin bide zion berak ere txapela kentzen ote zuen gela hartara sartzean. “Nik txapela ez ezik gainerakoa ere erantzten dut galtzontzilotan geratzeko, gela hartan egiten dut lo eta” erantzun zion.

Amaren aldeko gaitzizena, aldiz, Sabinekin Bixente beste aitona zor zion, Aramaioko errota –Salasango errota denboraz Monteroren zerra bilakatuko zen– eta arotza izateaz gain basozaintzan ere aritzen zena. Bixente eta Bonifazia Leturiaga senar-emazteak zazpi seme-alaba izan zituzten eta Kattalin nagusia zena. Etxeko lan gogorretan aritu zen txiki-txikitatik eta hamabost urterekin Donostiako Hotel Aranara bidali zuten ume zain. Ezkondu arte, 1914an, ez zen Aramaiora itzuli.

Anizeto Salaberri oso gizon zorrotza zen, metodiko eta ekintzailea. Gitarra eta bandurria jotzen bazekien. Mailegu hipotekariorekin egin zituen negozioak eta baita lur eta etxeen sal erosketarekin. Sendi bizimoduan agintari oso, ez zituen bere bi semeen ezkontzak onartu. Eta, halaber, ahalegin guztiak egin zituen alabak ezkongea gera zitezen. Aramaion, plazako etxeaz gain, Azkoaga auzoan “Uxar” eta Untzellako “Uxarte” baserriak zituen. Anizeto, Generosa Orberekin² zegoen ezkontuta. “On hutsa zen, bere izenaren modukoa” diote salaberriarrek.

Joxe Salaberri Deustuko Unibertsitatean egin zituen kontaduriako ikasketak batzuk, aita Anizetok asko espero baitzuen harengandik. Baina Joxe Kattalinaz maitemindu zen eta hantxe amaitu ziren seme nagusiarekiko aitaren borondate onak. Anizetok ez bide zuen begi onez ikusi bere seme Joxe Kattalinarekin ezkontzea, ezkontide hobea aukera zezakeelakoan. Joxe eta Kattalinen ezkontzara ez zen Anizeto


2. Generosaren aita, Jose Ramon Orbe Azkarate, Aramaioko zirujanoa zen 1860an.

agertu. Horrelako giroan bake gutxi, bikote gazteak Arrasate aldera joan behar izan zuten bizitzera, herri hartako Erdiko Kaleko Anizetoren etxe batera, behean harategia zeukana. Eta hantxe aritu zen Joxe lanean. Arrasaten jaio ziren lehen bost seme-alabak. Harrez geroztik Joxe eta Anizetoren arteko harremana guztiz zaildu zen.

Isidro, Anizetoren beste semea, ezkondu zenean istiluak errepikatu bide ziren, ezkontza –lehenagoarekin bezala– ez baitzuen aitak gustukoa izan. Hala ere, Isidrori igaro zion negozioa Anizetok eta Joxe kale gorrian aurkitu zen. Aramaiora itzuli ziren, lehenik Bixente “Montero”-ren baserri-errotara. Handik Nardeaga kaleko 8. etxebizitzara igaro ziren eta bertan beste bi seme munduratu zituzten. Laster, Patrizio Etxebarriak Aramaion bere garaian izan zuen etxe-olara –“Luxianorena”– joan zen sendia bizitzera eta han jaio ziren hiru seme alaba gazteak.

Joxe Salaberri, bohemio samarra bere bizimoduan, Arrasateko ibilbidearen ostean Unión Cerrajeran hasi zen lanean eta egunero oinez egiten zuen hamasei kilometro inguruko joan etorria, “Acha y Compañía”-ren autobus zerbitzua jarri arte³. Joxe autobuseko kobratzailea izan zen. Ateraldi ospetsuetako gizona zen, eta oraindik ere ondokoa oroitzen dute zenbait aramaioar adinduk. Sabinen aita lanera autobusean zihoan ostiral batean, Arrasateko feriara produktuak saltzera zeramatzatzen emakume baserriar batzuk izan zituen bidaiakide. Gesalibarren geldiune bat egin zuen autobusak eta emakume haietako bat jaitsi egin zen. Autobusa martxan jarri zenean eta hura bazihoakiola ikusita korrikari ekin zion, autobusaren gainaldean bide zeraman saskiaz arduraturik, oihuka: “El sexto...el sexto...”. Eta Joxek autobuseko eskaileratik erantzun zion “El sexto... no fornicar”. Arrasatetik itzultzean eta eguraldiak lagun, Aramaioko sarrerako zubiaren harrizko jarlekuan eserita Joxek ipuinak kontatzen zizkien seme-alabei eta horien lagunei, Kattalin amak afaria gertu zegoela etxeko balkoitik abisatu bitartean.

3. Hastapenetako zerbitzu hari Jesus Jauregirenak segitu zion gero, eta urte luzez aritu zen.



Aitarengandik musika zaletasuna bakarrik jaso zuen herentzian Joxe Salaberrik, musika zale handia izan baitzen eta bibolina jotzen zuen. Bere etxera hainbat lagun biltzen ziren iluntzeko orduetan haren kontzertu txikiak entzutera. Joxek musikaren lehen sekretuak erakutsi zizkien bere seme nagusiei. Sabineke ez zuen aukera hori izan baina gutxienez aitaren bibolina jaso zuen oinordetzaz eta oraindik urrezkoa bailitzan gordetzen du, bere musika karreran nolabaiteko eragina izan duela konbentzituruta.

Goiago esan dugun bezala, Lola eta Jose Mari Azkarraga Mozo izan ziren Sabinen ama-aita pontekoak. Sabin jaio zen eguneko bezperetan –abuztuak 18 eta 19– Aramaion Jai Aberkoiak antolatu ziren, eta 19ko arratsaldeko ekintza zentralean Jose Mari Azkarraga bera, Telesforo Monzon, Kepa Basaldua, Julene Urzelay eta Xabier Landaburu aritu ziren hizlari. Goiz hartan, berriz, elizkizun nagusian Vicente Goikoetxearen meza abestu zen. Munduratzear zegoen haurraren bizitza atarian geroko adierazleak agertzen ziren, antza denez.

Ama Kattalin erditu eta biharamunean bataiatu zuten Sabin Aramaioko elizan, eta umearentzat aukeratutako izenak Bernabe Kortazar erretoreari bitxi samarrak iruditzen zitzaizkiolako, idatzita eramatea eskatu zion aitapontekoari.

Sabin bi urte betetzear zela gerra piztu zen eta frankistak Aramaiora sartu aurretik Pako eta Juan bere anaiak frontera abiatu ziren, abertzaleekin, lehena Amayur batailoian borrokatzera eta bigarrena ertzain gisa. Aramaio okupatua izan zen egunean Joxe aita Arrazolatik zetorren oinez Joxe Antonio “Pepe” semearekin eta zerbait larri gerta zekiokoelakoan ihes egin zuen Bizkaira. Handik Frantziara igaro zen, eta Aramaion auzoko zituen eta Kanbon errefuxiatuta zeuden azkarragatarren ondoan bizi izan zen. Kanbotik Amiensera aldatu zen, bizimodua harakin lanetan irabazten zuelarik. Alemaniarrak Frantzia okupatu zutenean, Bartzelonara igaro zen. Muga pasatzean, gainean zeraman dena kendu zioten. Katalunyako hiruburuaren kaleetan nora jo ez zekiela, Arrasateko kapitain erreketek batekin topo egin zuen eta hari esker Aramaiora itzuli

ahal izan zen, gaixorik, politikan edota kargu publikoan aritzeko zortzi urteko gaitasungabetzearekin eta –ondasunik ez zuelako– 500 pezetako isun arinarekin. Ez zen suspertu eta 1941eko otsailaren 21ean hil zen.

Sendiaren bizimodua zeharo bestelakotu zen, hainbat euskal etxetan bezala. Gerraren arriskutik ihes egin nahian Aramaioko “Goiko Errota” baserrian babestu zen sendia denboralditxo batez, baina aurki lehengo etxera itzuli ziren. Handik gutxira, ordea, premiak biderkatzen zitzaizkielarik, “Muertza” baserri ondoko eraikin zahar batera aldatu behar izan zuten, eta Kattalin bilakatu zen guztien sostengua. Han sei urtez bizi izan ziren. Sabineek ez du bere aitaren gaineko oroitzapen argirik eta hari buruz dakizkien anekdota eta datuak oro erreferentziaz jaso ditu. Ama izan zuen, beraz, Sabineek bere haurtzaroaren ardatz eta haren inguruan eraiki zuen umeak bere mundutxo.

*Amaz enamoratusa nengoen; energia handikoa zen
–gogoratzen du–. Gaztetako argazkiek garbi erakusten dute
oso polita izan zela eta esan didatenez ezkongai batzuk izan
zituena, Aramaion eta Arrasaten. Aitari buruz hitz egiten zuen
aldi bakanetan, hartaz maitemindua egon zela igar
zekiokeen.*

Sendiaren ekonomiak neurri erabakigarriak hartzera behartu zuen Kattalin ama. Lanean hasi zen Aramaion Norberto Jauregik irekitako harategian eta artean etxean bizi ziren seme nagusiak hemen eta han kolokatu zituen, batzuk morroi gisa eta beste batzuk Arrasateko lantegietan. Pako eta Juan, berriz, gerra amaituta zigortuta egon ziren, lan behartuetan, eta handik ateratzean soldadutza egin behar izan zuten. Ondorioz, ez ziren 1946ra arte behin eta betiko etxera itzuli⁴. Nolanahi ere, gabezia ugari pairatu arren, Kattalinekin alaitasuna irradiatzen zuen, ezagutu zuten guztion iritziz, kantuan eta dantzaz jartzeko ezer gutxi behar zuelarik.

4. Itzuli ez zena Sabinen aita pontekoa izan zen, Jose Mari Azkarraga 1937ko abenduaren 16an fusilatu baitzuten faxistek Derioko hilerrian; 21 urte bete berriak zituen.

Anizeto Salaberri bere aitagarreba hiltzean Kattalinek harremanak ondu ahal izan zituen bere senar zenduaren sendiarekin eta herriko plazan zeukaten etxera aldatu zen ama eta seme alabak. Izeba Luisa izango zuten, ordea, aurrerantzean etxeko nagusia. *“Bere aitaren alaba zen”* –Sabinen hitzetan– estilo pertsonala ezarri zuen giza komunitate txiki hartan. Dena den, *“Sabintxo”* –hala esaten zioten eta, etxekoek– izeba Luisaren begi ninia izan zen. Ordurako Sabin zortzi bat urteko mutil koskorra zen eta bi urteko eskarmentua zeukan eskolan.

Udal eskola Udaletxean bertan zegoen kokatua eta Joaquín Arana izan zen Sabinen lehen maisua. Hala ere, eskolan hasi aurretik Sabinekin bazekien irakurtzen, frantsesera menderatzeaz gain heziketa zabalekoa zuten izeba Luisari esker. Maisu hark bere etxean zeukan pianoan ipini zuen eskua lehen aldiz teklatu batean. Garai haietako oso oroitzapen goxoak gordetzen ditu Sabinekin, bere ondoan ikusten dituelarik Bittor eta Pedro Mendiakua, Alatz Arana, Antton Pol, Martín Arana, Rafa Molina eta beste zenbait, denak haur itxuran, bizitzak zer eskainiko ote artean bost axola zielarik.

Ez nintzen bat ere futbol zale izan. Nahiago nuen kontzejupean pilotan aritzea, nahiz eta ez naizen goi mailakoa sekula izan. Nire arreba Asun, berriz, oso ona zen. Hala ere, oraindik palaz jolasten dut astero lagunekin.

aitortzen du Sabinekin. Dena den, noizean behin kaletarren eta baseritarren arteko futbol partiduak antolatzen ziren eta kaletarrek Anton Pol eta Jose Ramon Petreñasen moduko jokalaririk zituzten arren baseritarren indarrak azpiratu egiten zituen ia beti kalekumeen ilusioak.

Horregatik edo, Sabinekin Aramaioko bideetatik paseatzea atseginago zuen, Bittor Mendiakua eta Rafa Molina lagun ohi zituelatik. Gazteagotxoak zen arren, gehienetan Anton Polek ere osatzen zuen taldea. Hamar urteko umeengan ez da normala izaten halako zaletasunik aurkitzea, baina Emilio Salgari eta Julio Vernerren irakurgaiak materia ematen omen zieten lauei euren irudimenean hegaz egiteko, eta jai egunetako arratsaldeetan

hizketaldi luzetan galtzen ziren, auzo batetik bestera zihoazen bitartean. “Bolintxo”ren ondoko presan bainatzen ziren eta karramarroak harrapatzen zituzten eskuz. Pote batean egosi eta Añibarriko zubi azpian jaten zituzten lau lagunek.

Margolaritzak ere tiratzen zuen lagun taldetxoa eta akuarelaz baliatzen ziren. Behin, erakusketa txiki bat ere antolatu zuten Rafaren sendiaren dendan eta Felisa Rodero haren izebak margo lanen bat edo beste saltzen lagundu zien. “Paleta Bizente Muñoak egin zigun. Sabin eta biok eztabaida ugari izaten genituen, gure margo lanak zirela eta. Ikuspuntu desberdinak genituen... Eta behin, ezbaietan denbora ez galtzeko, margo lana erdi banaz egitea deliberatu genuen. Oso ongi atera zela uste dut, eta obra hura –oihalean eginda– etxean dauka nire seme Iñakik” dio Rafa Molinak.

Bittor Mendiialduak gogoratzen digu:

Sabin kuadrillako adimentsuena zen. Beti zegoen zerbait asmatzen. Doctor Tximista esaten genion. Behin galenazko irrati emisora oso bat prestatu zuen. Eta bere etxetik emititzen zuen. Txirrindulari lasterketa bat transmititzeraino heldu zen. Artista bat genuen! Elektrizitaterako gaitasuna seminarioan ikasi zuen. Nire gurasoen etxeko instalakuntza berak ipini zuen. Baina ezertan iaio bazen, musikan genuen. Primerako konposatzailea zen eta nik sarritan gomendatzen nion musikara dedikatzea, gainerako hobby guztiak utzita.

Anton Polen ustez, berriz, Sabinekin alaitasuna zuen nolakotasun berezia: “Garaiko Aramaion ez zegoen liburu asko baina Sabinekin edukitzen zituen, eta arratsalde askotan berak irakurritakoa kontatzen zigun, adi-adi egoten ginelarik. Oroitzen dut Daudeten “Tartarin de Tarascon” orduantxe ezagutu nuela, Sabinekin ahotik, umore zentzu handiz azalduta” Rafa Molinak, bere aldetik, “Bittoren etxe osteko ortuan biltzen ginen, bertako txabolatxo batean, geure ilusio eta ametsei bide emateko” dio.


Joaquin Aranari Felicísimo eta Eduardo maisuek jarraitu zitoten Sabinekin formazioan. Azken horri buruz, trebiñotarra jaiotzez, oroitzapen txarra gordetzen du orduko ikasleak, eta

gogoratzen du hura izan zela Sabin izatetik Sabino izatera behartu zuena eta espainiar himnoa ia-ia orduoro abesarazi ziena. Geroago Joaquin Saez de Vicuña maisua agertu zen Aramaiora eta hari esker aldaketa positibo nabaria ezagutu zuen Sabineke bere heziketan.

Batez ere matematikak ikasi nituen Don Joaquinekin. Gero arlo askotarako balio izan didan buru eskemetarako abilezia piztu bide zuen maixu hark nigan. Aitortu behar dut, Rafa Molina adiskideak fisikako liburuak ekartzen zizkidala Madriletik, eta horietan oinarritu nintzen nire esperientzietako hastapenetan. Rafaren aita iturgina zen eta bere lanetarako kristalak erabiltzen zituen, besteak beste. Rafari esker eskuratzen nituen kristalak, ongi neurtuak nik egindako planoen arabera, eta haiekin elektrizitatea lortzeko trikimailua asmatu nuen...

Garai hartarako Sabin elizmutil funtzioak burutzen zituen Aramaioko elizan, Andres Agirre erretorearen aginduetara. Gauza jakina da sasoi hartan eta batez ere herri txikietan, elizak haur eta gazte askorentzat musika ikasteko aukera eskaini zuela. Eta Sabinen kasuan hala izan zen, solfeo klaseak Andres Agirreke eman baitzizkion. Geroago, Pako anaiak –militar zerbitzutik itzulita– solfeoa sakontzen lagundu zion. Bestalde, Fidel Ibargutxi herriko apaiz lagunkideak berriz, pianoaren sekretuetan aurrera abiarazi zuen. Ikasgaiak gertarazteko, Garziarena medikuak etxean zeukan pianoaz baliatzen zen. Eta hamabi urterekin elizako armonioa jotzen zuen Sabineke, zentzu handiz. Gaztetxoarengan musikarako bidea sendotzen ari zen.

Mutikoa kozkortzen ari zen, beraz, eta Salaberri-Urzelai sendian erabaki batzuk hartu behar izan zituzten. Anaia zaharrak ordurako lanean ari ziren, Gerardo Aramaion eta besteak Arrasaten. Gaztetxoentzat, berriz, zenbait aukera sortu ziren: Asunek, Arabako umezurtzei eskainitako ikasketa-beka bat lortu zuen eta hari esker Madrilera joan zen; Sabinentzat, bere ama ponteko Lola Azkarragak izeko zuen Natividad Mozo errenteriarrengandik apaizgaitegirako egokitua zegoen beste beka bat erdietsi zuen. Ordurako, Sabineke adierazia zeukan etxean: “Abade noie” Hori dela eta, alaba Madrilera bidali ahal



izan zuten ikastera eta Sabin, berriz, Laguardiako Apaizgaitegira. Nolanahi ere, aitortu behar da erabaki haren aurretik iskanbila txiki bat izan zela sendian, mutil gaztearen norabidea zela eta. Alde batetik, badirudi Andres Agirre erretoreak ez zuela Sabinengan bokaziorik ikusten. Bestalde, izeba Luisak lehengusu propio baten seme jesuitarekin kontsultatu ondoren, Sabin Konpainiarako ildoan jarri nahi izan zuen. Baina ama Kattalinek, sendo eta zuzen, zentzuz aholkatu zion semeari: “Abade izango haiz eta behingoz ez egin kasu izekoari” Hamalau urte bete berriak zituen Sabinekin.

Apaiz bidean

Laguardiako Victor Tapia Tutore Etxera heldu zen 1948an. Humanitateetako lehen ikasturtea egin zuen bertan, besteak beste José Macías, Mario Marañón eta Salvador Marzana –azken hori euskaldun bakarra– irakasle izan zituelarik. Laguardiako egonaldia osasun fisikoaren aldetik ere ongi etorri zitzaion gazteari, ordura arteko bronkitiserako joera desagertu baitzitzaion betiko.

Hurrengo bi urteak Bizkaiko Gaztelu-Elexabeitiako Apaizgaitegi Txikian burutu zituen. Bertara Arabako eta Bizkaiko apaizgaiak biltzen ziren, Gasteizko Diozesiarrera aldatu aurretik. Latina zen gehien aplikatu beharreko gaia. Barnetegi hertsiko diziplina zen nagusi arautegian, nahiz eta Sabinentzat asteburuetan ihes egiteko aukera ere bazen, Artea herriko elizan organoa jotzen baitzuen igandeetako mezan, Javier Bengoa Ruiz de Azua⁵ bere ikaskidearekin batera. Isidro Larrauri zen errektorea eta horrek baimena ematen zien bi lagunei liburutegiko piano ederrean praktikak egiteko, gainerakoak batailako beste batekin konformatu behar ziren bitartean.

Igokunde Ama Birjinaren dogma 1950eko udazkenean aldarrikatu zenean Larraurik poema batzuk eman zizkien pianoko ikasleei, musika obraren bat konposa zezaten. Eskaintzari erantzun zion bakarra Sabin izan zen, eta

5. Javierren osaba bat Jose Mari Azkarraga Sabinen aitapontekoaren ziega kidea izan zen Larrinagako kartzelan. Azkarraga fusilatua izan zen egunean, Juan Ajuriagerrari bidalitako karta batean dio: “A mi buen amigo Azua, que me despida de todos los arabarras, y que el final de la novela la vea en mí”.

apaizgaitegiko “Vinculum” zeritzan aldizkarian argitaratu zioten. Horixe da Sabin Salaberrik argitaraturiko lehen obra.

Gaztelu-Elexabeitiako urte haietako oroitzapen goxoak gordetzen ditu, beraz, Sabineek, nahiz eta bertako ikasleriari dagokionez, arabarrak hirugarren mailakoak zirela dioen, Bilbokoak –lehenak– eta gainerako bizkaitarren ostean. Baina ez du ezkututzen bere harrotasun puntua, apaizgaitegiko bi ikasturteetan gelako lehena bera izan zela gogoratzean.

Arabar bat aurrena, hainbeste bizkaitar fanfarroiren artean! Liburutegi ederra genuen eta irakurtzeko zaletasuna han garatu zitzaidan. Baina dena ez zen polita izan; adibidez, irakasleriaren erdia eta irakasle batzuk euskaldunak ginen arren –besteak beste, Manuel Estonba euskaltzalea– han ez zen euskara inondik inora entzuten, ezta aipamenik egin ere.

Gaztelu-Elexabeitiatik Gasteizera aldatu zen Sabin 1951-52 ikasturtean. Ordurako, lehengo Gasteizko Gotzain Elizbarrutia zatitua zegoen⁶ eta bizkaitar Apaizgaitegitik arabarrak bakarrik joan ziren Arabako hiriburukora, bizkaitarrak Deriora zihoazen bitartean.

Jose Maria Bueno Monreal zen gotzaina eta errektorea Felipe Ugalde. Zazpi ehun ikasle inguru ari ziren ikasturte hartan, Laguardiako Tutore Etxea eta Saturraran zein Gaztelu-Elexabeitiako Apaizgaitegi Txikiak itxi ondoren apaizgai arabarrak Gasteizko egoitzara igaro ondoren. Sabineek gogoratzen duenez, garai hartako apaizgaitegiko bizimodua arautegi espiritualista osokoa zen. Erregimen itxia, zeharo, ez zen egokiena, inondik ere, heziketa integralerako. Hala ere, Sabineek dioenez, bazen halako begirune puntu bat zientzia-fedea binomiorako, Jose Miguel Barandiararen denboretan ereindako esparruan, bereziki.

6. Bilboko eta Donostiako elizbarruti berriak 1949ko azaroaren 2an sortu ziren, lehen gotzainak, hurrenez hurren, Casimiro Morcillo eta Jaime Font Andreu izan zirelarik, 1950eko maiatzaren 10ean izendatuta. Egun berean Bueno Monreal Gasteizerako hautatu zuten. Arrazoi politikoak izan ziren, noski, zatiketa horretara eraman zutenak. Neurri haiek estutuagoak eginez, Araba eta Bizkaia Burgosko elizbarrutira egokitu zituzten eta Gipuzkoa Iruñekora.

Eta Gasteizera iritsi berriak adiskide berri ere aurkitu zituen, urte mordo baten ostean une haiek plazerrez oroitzen dituztenak. Horietako bat Felix Plazer Ugarte da:

Apaizgaitegiko pabilioi zabal haietako baten igarobidean topo egin nuen lehen aldiz Sabinekin, mutiko ile hori, irribarretsu eta garai zena. Bere arrebarekin zetorren, Apaizgaitegira sartzeko azterketa egitera, han geunden guztiok bezala. Ordudanik 1960an apaiz egin ginen arte ikasketak, abestiak, jolasak, otoitzak eta, batez ere, adiskidantza partekatu genuen.

Lehen urteetatik arreta irabazi zidana musikarako zuen erraztasuna izan zen. Solfeoko klaseetan, Charpentier metodoaren niretzako pentagrama zailak dezifratzeko norgehiagoketan bakoitzak erakusten zuen trebetasun gutxi gora beherakoaren arabera eserita egoten ginelarik, Sabinekin normalean lehen tokia izaten zuen. Nik, beraz, urrutitik ikusten nuen. Baina ez bakarrik gai musikalak, baita latina ere, sakon-sakon ikasten zela orduan, Sabinentzat hizkuntza mintza erraza zen, ziur aski bere ama hizkuntzari esker, latinaren deklinabideak ahalbidetzen zituen.

Eta ez dut matematika aipatuko, horretan ere trebea zelarik. Filosofian eztabaida burutsuak edukitzen genituen, eta Sabinekin iaotasun dialektikoa erakusten zuen. Baina ez genituen bakarrik humanitateak, filosofia edo teologia ikasten, baizik eta kirolariak ere ginen. Sabin atezain genuen ikasgelako taldean, nahiz eta, nire antzera, ez ginen diziplina horretan oso abilak. Beste afizio batzuk ere atsegin genituen, eta Apaizgaitegiko Ekintza Aretoaren eszenatokian gimnasio txiki bat eratu genuen soka eta eskalekin, kasu honetan musikalak ez zirenak.

Ikasketen hastapen haietatik Sabinekin gogoratzen duen izen bat Pablo Bilbao Aristegi irakaslearena da. *“Nahiz eta lehenago musika eta literatura gogokoak izan, Bilbaorekin hasi nintzen gai hauek sakonki gozatzen. Bihotzez maite izan nuen, bizi izan zen bitartean”*. Beste irakasle batzuk aipatu behar dituenen, Juan Jose Perez Ormazabal eta Antonio Anda aukeratzen ditu Sabinekin.

Oso ikasle ona izan zen Sabin. Eta hala azpimarratzen dute, urte haietan ezagutu zuten guztiek. Berari ere entzun dakioke baieztapena:

Nire seme-alabek diotenez, bai, ikasle fina izan nintzen. Nire kalifikazioak erakusten dizkiedanean, gauza bera esaten didate beti: "Aita, nota hauekin zuk ez zenuen lagunik, ezta?". Nire erantzuna, berriz, honako hau izaten da: "Bai, oso kalifikazio onak izaten nituen, baina orduan egin nituen lagunek, lagun izaten jarraitzen dute⁷."

Adinez nagusiagoa denez gero apaiz bidean aurreratuko zegoen Jesus Mari Elejalde herrikideak oroitzen du Sabini kostatu egin zitzaiola ikasketetan zentratzea. Gai askok tiratzen zuten eta! Elejaldek dioenez, Sabini bizitza maitemintzen zihuan, ikasketetan barrena deskubrimendu berriak egiten zituen heinean. Eta karrerako gaietatik aparteko beste batzuetara sartu-irten grinatsuak burutu zituela gogoratzen du.

Haur maitagarri eta apalak aurrera egin zuen eta sasoi batean matematika eta fisikarekin buru belarri aritu zen. Oroitzen dut behin, Kapera Nagusiaren instalakuntza elektrikoa konpontzera etorri zen tekniko batek igarkizun tranpa horietako bat jarri zigula. Ebazpena, matematikaren bidez, oso konplikatua zen, baina Sabinekin –dozena erdi bat arkatz gastatu ondoren eta arbela ekuazioz beteta– asmatu egin zuen.

Felix Plazerrek bere oroitzapenekin jarraitzen du:

Sabinek bere pasio guztia musikan jartzen zuen eta gure izpirituan sentimendu bera piztu nahi zuen. Apaizgaitegiko ordu haietako bere lehen armonizazioa, Brahmsen gai baten egokitzapenarekin egin zuen, San Prudentzioren himno baterako, eta berak zuzendua egun horretan abestu genuen. Geroago, gure ikasgelako ikasleria murriztarekin –Gasteizko eliz barrutiaren zatiketa dela eta– entzumenerako oso jantziak ez geunden arren, otxote bat osatu zuen Gabonetako lehiaketa baterako, besteak beste Luis Aranburuk epaitu behar zuena. Sabinekin emandako tonuak ez genituen ongi hartu eta emaitza desafinatu samar ateratu zitzaigun. Erabakiarengatik gure aieneak arren, ez genuen adorea galdu.

7. *Euskonews & Media* 150. zbk (2002/1/11-18) Ismael Diaz de Mendibil.

Musika arloan aurrerapen ederrak egin zituen Sabinekin hasieratik. Horrela, 1953ko maiatzaren 26an⁸ Pianoko Akademiaren ikasleek kontzertu bat eskaini zuten. Jotzaileen artean Sabin Salaberri zegoen, Haydn, Mozart eta Rachmaninoffen obrak interpretatuz. Besteen artean Benjamin Mendialdua aramaixoarra eta Javier Bengoa Sabinen adiskide minak zeuden.

Sabinek gogoratzen duen bezala


Apaizgaitegian musika ez zen txantxetako gaia, garrantzi handia ematen zion materia baizik... Ez nago ados, inolaz ere, oinarritzko hezkuntza sisteman egun eskaintzen den musika instrukzioarekin. Ikaslea askoz gehiago motibatu beharko litzateke, musika ulertzen eta maitatzen lagundu beharko litzaioke, eta alde horretatik, herri musikaren balioa deskubriarazi⁹.

Eguberriko jaietan eta udako oporretan bakarrik etxeratzen zen, ohi bezala udako denboraldia bi zatitan banatzen zelarik. Egun haietan Sabin gazteak Aramaioko lagunekin eta herriko beste apaizgaiekin abenturak konpartitzeko aprobetxatzen zuen. Baina igande arratsaldeetako arrosarioa amaituta, Andres Agirre erretoreak, eguzkiak bazterrak galdara bailiran eduki arren, Tellamendiraino eramaten zituen gazteak, iluntze aldera plazan arituko zen “inpernuko hauspojolea”ren soinu tentagarri kilikagarrietatik urrun eta aske gordetzeko, nonbait.

Andres Agirrek suposa ezin zezakeena zen handik gutxira Sabin “inpernuko” instrumentu jole amorratua bilakatuko zela eta oporretako egunetan Aramaiora hurbiltzen zenean, Bittor Mendialduaren eta, jakina, jabearen Anton semearen konplizitatearekin, “Poliko”-ren tabernan ordu goxoak ematen zituen bertako bezeroak dantza eta kantuan ipiniz. Ez ziren gutxi izan ere, herriko Doña Angela eta Doña Elviraren etxeko pianoa aprobetxatuz, Sabinekin lagun gazteentzat eta Garziarena

8. *Historia del Seminario Diocesano de Vitoria*. Volúmen II, (Andres Ibañez Arana) 378. orrialdea.

9. *Gasteizko Udal Kazeta*. 2007ko azaroan.



barojari medikuarentzat eskainitako kontzertu txikiak, Beethoven, Chopin eta abarren obrekin. “Esne eta pastak ateratzen zizkiguten bi emakume gogoangarri haiek, emanaldi haien ostean” oroitzen du Rafa Molinak.

Gasteizko Apaizgaitegiko lehen bi ikasturteak gaindituta, Filosofiako ikasketei ekin zien. Eta oroitzapenak hiru irakaslerentzat ditu Sabineek, bereziki. Lehena Urbano Gil Ortega da, eskolastiko tomista bere erakuspenetan baina irekia pentsamenduan, Kant, Hegel eta antzerakoak ahazten ez zituen. Bigarrena Gregorio Rodriguez de Yurre soziologo ospetsua izan zen, gizarte filosofiako oinarriak erakutsi zizkiena. Azkenik, Joxe Manzana du gogoan, beranduago Sabinen lagun mina bihurtuko zena.

Sabin Filosofia ikasten ari zela Francisco Peralta izendatu zuten Gasteizko Gotzain berria 1955eko martxoan eta urte bereko ekainean Angel Sukia Apaizgaitegiko erretore jarri zen, Ugalde ordezkatzuz. Aldaketa haiek ez zuten eragin onik izango Sabinen ibilbidean.

Teologiako ikasketetan barrena egin zuen Sabineek 1956-1957 urte akademikoan. Eta goi mailako irakasleen artean lau aipatzen ditu orduko ikasleak, ondoko ordenan. Jose Maria Zirarda, bekoki zabalekotzat jotzen duena, irakasle on, hizlari bikain eta optimista osoa. Angel Sukia, tradizionalista hutsa, moralista hertsia eta goi helburuei begira lan egiten zuena. Hirugarrena Luis Maria Larrea da, bere garaian gudari izandakoa; Sabinentzat aparteko aholkulari izan zena, gizon bitxia bide zen, printzipio moraletan zorrotza zuten arren horien aplikapenean liberal samar jokatzeko baitzuen. Azkenik, Jose Maria Setien dugu, irakasle bikaina eta –Sabinen iritziz– puntu bat kontserbadorea bere ikasgaietan,

*batez ere, gero bere ibilbidean erakutsi duenerako.
Baina, ba al dakizu Setienek apaizgaitegiko futbol taldean
jokatzen zuela, erdiko aurrelari moduan? Deportivo
Alavesen kontra jokatu zuten batzuetan.*

Jose Maria Setien iritzia ere jaso ahal izan dut, izan zuen ikasle haren gain, eta Gotzain emeritoak dioenez

Oso ikasle ona izan zen Sabin. Zentratua bere ikasgaietan, bat bateko adimena zuen, argia. Beharbada, akatsen bat aurkitzearren, “gerri” gutxikoa zela esango nuke, zuzenegia. Urte batzuk geroago bizi izan zuen krisia da horren lekuko, izan ere Sukia beharrean bere nagusi Larrea edo Zirarda eduki izan balu... auskalo zer gertatuko zatekeen. Ene ustez, apaiz on bat galdu zen baina, ziur aski, euskal kulturako gizon handi bat irabazi genuen.

Beste irakasle batzuk ere ditu Sabineek bere oroitzapenetan, esaterako Andres Ibañez Arana –*“Idazti Deunak ikuspegi historizista batetik erakusten zizkigun eta ez, hainbeste, dogmatismotik. Ongi konpontzen nintzen berarekin”* Jose Zunzunegi ere dago Sabinen irakasle kuttunen artean, elizaren historia erakusten zuena. *“Ez zen datuetara mugatzen, arrazoiak eta ondorioak azaltzen saiatzen baitzen”* Joakin Goikoetxeaundia da beste bat, frantziar eskolako espiritualista, nonbait.

Munduari buruzko ikuspegi baikorra zuen, baina desenfokaturia, okerra. Eta ideia haiekin sortu zuten gudan lantegi idiliko, zoriontsu, filantropiko eta esku zabaleko militantek ginelako sentsazioa. Kristori zuzen-zuzenean zegokion elizaren partaide aktiboak ginela, Espiritu Santuak lagun, eta beti ere bere buruari zintzotasun osoz ari zen elizako langileak, alegia. Utopi burbuila batean sartuta bizi ginen; apaizgaitegiko hornez bestaldean mundua ez zen gurea, bestelakoa genuen...

Hitz bereziak ditu Sabineek beste bi irakaslerentzat: Leoncio Arabiotorre eta, batez ere, Julio Valdes Goikoetxea. *“Maitagarriak ziren biak”* dio aramaioarrak. Lehenengoarekin biologia ikasi zuen, eboluzionismoaren oinarriak barne, eta Valdesekin musika: *“Armoniaz dakidan guztia berarekin ikasi nuen”* Valdesen ama aramaioarra zen, Vicente Goikoetxea musikari handiaren arreba, eta harremanak zituen Sabinen sendiarekin ere. Bost urte inguru gozatu ahal izan zituen Sabineek Valdesen jakintzaz, irakaslea 1956an hil baitzen.

Sabinen musika maila nolako altura hartzen ari zen ideia hobea egiteko, diodan teologiako lehen kurtsoetik, 1956-57, Kantu Gregorianoko klaseak eman zizkiela bere ikaskideei. Ulergarria den bezala, asignatura horren kalifikazioa gorenekoa da urtero espediente akademikoan zehar.

Urte hartan ere Sabinekin txistua ikastea erabaki zuen. Javier Sanchez Erauskin ikaskidea izan zuen akuilari handia delibramenduan. Teologoaren prefektua zen Guillermo Medranorekin kontsultatu zuen eta honekin txistu bat erregalatu zion. Sabinen eraginaz osatu zen lehen txistu banda Apaizgaitegian, irakaslea Gasteizko Udal Bandako zuzendaria, Primitivo Onraita, zelarik. Ikasturtean zeharreko ospakizun batzuetan ez ezik San Prudentzio jaietan ere jotzen zuten, hori bai, sotana beltza beste jantzi egokiago batez ordezkatu gabe. *“Tomas Etxabarri nire musika irakaslea kexu agertzen zen, pianoa beharrean txistua jotzeagatik nazionalistatzat hartzen baininduen”.*

Pianoa, organoa, txistua eta akordeoia dira Sabinekin erabilitako instrumentuetako batzuk, balantzak aurrenekoaren alde egiten badu ere, nabarmen gainera.

Baina ez naiz instrumentista ona izan. Ez naiz kontzertu bat emateko gai inoiz sentitu. Oso urduri ipintzen nau publikoaren aurrera atera behar dudala pentsatzen soilak. Alde horretatik, gauza bera gertatzen zitzaien nire piano irakasle bikaina izan zen Tomas Etxabarriri.

Apaizgaitegiko urte haietako ikaskideez galdetzen zaionean, Sabinekin hiruzpalau ditu mihi puntan beti, berarengan adiskidantzaren zeinua betiko utzi zutenak: Felix Plazer Ugarte, Javier Bengoa, Jose Enrike Ayarra eta, jakina, Jesus Mari Elejalde aramaixoarra. Berrogeita hamar urte geroago ere lotura minak bizirik segitzen du haiekiko. Horrek ez du adierazten, inondik ere, lagunaren esparrua txikia duenik. Kazetari batek¹⁰ esan zion behin: “Zure lagunek diotenez gizon ona eta zintzoa zara”. Honako hauxe erantzun zion Sabinekin:

Guztiekin bezala, lagunak eta etsaiak ditut eta zuk, antza denez, lagunekin bakarrik hitz egin duzu. Nire gogoetak eta ideiak ez ditut inoiz ezkutatu. Esaterako, nire euskaltasuna ahazteko eskaini didate eta noski, ez dut horrelakorik onartu. Araba mailan politikaria izatea ere eskaini didate eta

10. *Euskonews & Media* 150. zbk (2002/1/11-18) Ismael Diaz de Mendibilen elkarrizketa.

*baztertu dut... Beti oso argi izan dut zein zen nire bidea.
Gaztea nintzela biologia ikasteko gomendatu ninduten eta ni,
burugogor, ezetz, musika zela nirea.*

Baina egia da, Sabin ezagutzen duten denek antzerako mugaketa egiten dutela aramaioarraren nortasunaz galdegiten zaienean: “Gizon zintzoa, inori kalte egin ez diona”.


Kalte, ordea, Sabini bere osasunak egiten zion. Ultzera gastrikoa izan zuen 1955ean eta aldi kritikoak izan ohi zituen, batez ere gogo ihardunekin eta udaberriko azterketekin bat zetozelarik. 1958-59 ikasturtean hiru hilabetez etxean egon behar izan zuen. Garai hartan ekin zion goi mendietako abenturari ere, kirolak osasun susperteta ekarriko ziolakoan.

Teologia 1959-60 ikasturtean amaitu zuen, modu dirdiratsuz: bi “meritissimus summa cum laude”, hiru “meritissimus cum laude” eta “meritissimus” bat. “Universa Theologia”-ren gaineko azterketa “meritissimus cum laude” Horren ondorioz Teologia Sakratuari buruzko Batxilera gradua eskuratu zuen “Magna cum laude probatus” kalifikazioarekin. Horrela, egundoko notekin bukatzen zuen Sabinekin, ikasle moduan, apaizgaitegi desberdinetako espedienteak.

Handik zenbait urtetara, 1974-75 eta 1975-76, Historia-Patristika adarreko ikasketak burutu zituen, irakasleen artean Jose Ignacio Telletxea Idigoras 2001ean Manuel Lekuona Sariduna ere izango zena nabarmentzen duelarik. Eta lizentziatura prestatu zuen, Vicente Goicoechea y Errasti, renovador de la música religiosa española” gaiarekin.

*Aztertu nahi nuen, euskaldunek erlijioso musikan
izandako eragina. Guridi, Zubizarreta, Olaizola, Garbizu... eta
abar luze bat dugu ekarpen baliotsua egin dutenak, baina
konturatu nintzen egile bakar batekin nahikoa nuela. Eta
hori, hain zuzen, herrikide nuen Goikoetxea zen. Beraz horri
lotu nintzaion eta oso gustura geratu nintzen emaitzarekin.*

Aramaioiko udal artxiboak arakatu zituen Sabinekin, datu bilketa sakonean. Valladolidedeko katedralean ere laguntza jaso zuen, bertako kapera maisua izan baitzen Goikoetxea.



Gasteizen 1928an izandako Musika Erljiosoaren IV Kongresuaren aktetatik ere material dezente atera zuen¹¹. Ez zen txikia izan, Gasteizko Apaizgaitegiaren artxiboan Julio Valdesez eskainita gordetzen zen dokumentazioa, Goikoetxea bertako irakasle izan nahi zueneko. Ahaleginaren ondorioa, Sabinekin espero zuen baino mamitsuagoa gertatu zen. Aramaioarraren jaiotzako lehen mendeurrenean, 1954, herriko Udalak antolatutako omenezko ekintzen artean obren katalogo bat burutu zen. Sabinen lan sakonak katalogoa handitzea ekarri zuen, ordura arte ez ezagututako obrak aurkitu baitzituen.

11. Valladoliden 1907ko apirilean I Kongresua burutu zen. Eragile nagusia Nemesio Otaño jesuita izan zen, baina horren aitortpenen arabera, bilkuraren benetako arima Goikoetxea izan zuten.

Apaiztu eta lanera

Behin Teologiako ikasketak gaituta, eta ordena txikiak atzean utzi ondoren, Jose Maria Zirarda Sevillako Gotzain laguntzailea buru zelarik, zeremonia ospetsu batean apaiztu zen Sabin Salaberri, beste zazpi lagunekin, Gasteizko Apaizgaitegian, 1960ko abuztuaren 14an. Biharamunean Aramaion eman zuen lehen Meza, bataioko ama ponteko bera¹², Lola Azkarraga, mezakoa ere izan zelarik. Aitabitxia, aldiz, Juan anaia izan zen. Kattalin amak emozioz betea jarraitu zuen aldaretik gertu bere seme gaztearen lehen ofizio sakratua.

Une haietan zer sentitu zuen itauntzen zaionean, ironia puntu batez baina, hondoan, tristezia nabari duela, dio:

Inork irudika zezakeen lantegirik hobereanean nengoen. Okerretik libre arituko nintzen eta nire kargu berritik aurrerantzean gizateriari arreta desinteresatuaz begiratuko niolakoan nengoen. Gure buruzagiek onena nahi zuten gu guztiontzat. Horrelakoxea zen, aurrerantzean aurkituko genuen munduari bide zegokion panorama. Gainera, lanean hasteko itxaroten ari zitzaidan, Santa Agedako emakumeen ero etxean, apaiz titularraren oporrak zirela eta ordeztapena egitea eskatu zidaten eta. Amari nire lehen soldata eskaini ahal izan nion. Hura zoramena!

Hilabete eta erdiz Gesalibarren aritu ondoren, 1960-61 ikasturterako irakasle izendatu zuten Sabin, Gasteizko

12. Consuelo Salaberrik adierazi didanez, Natividad Mozori, hots, Sabini eliz ikasketetan hasteko beka ahalbidetu zionari eskaini ziotela amabitxia izatea, baina hark Lola Azkarraga bere loba izatea proposatu zuen.

Apaiizgaitegian. Erretorea Angel Sukia zen eta arabar Gotzaina Francisco Peralta Ballabriga. Aramaioarraren ardurapean musika arloa geratu zen, ordurarteko irakaslea –Jose Maria Zapirain– Donostiako Apaiizgaitegira aldatu baitzen. Zapirain eta Sabinen arteko harremanak ez ziren irakasle-ikasle gisa onak izan. “Ez zuen inoiz nigan konfidantzarik izan” aitortzen du.

Musikako ikasle izan nintzeneko irakaslerik kuttunenak Pablo Bilbao eta Tomas Etxabari izan ziren, azken hau Gasteizko Kontserbatorioko zuzendari genuena. Pianoaren teknika irakatsi zidan, batez ere.

Sabinek musika arloaren gaineko ardura hartu zuenean garai berriak zetozen Apaiizgaitegirako. Lehen aipatu den moduan, eliz barrutiaren zatiketa burutua, apaiizgai gipuzkoar eta bizkaitarrak zegozkien egoitzetara joan ziren, Gasteizkoan arabarrak bakarrik geratuz. Beraz, 1906an sortutako Schola Cantorum ospetsuak¹³ garai hobeak ezagutu zituen, eta Sabin Salaberriren zuzendaritzapean jarri zenean motel zebilen, ahuldua guztiz, abeslaririk hoberenen ihesarekin. Sabin buru belarri saiatu zen musika giroa suspertzen eta abesbatzak berak ere gora egin zuen. Entzungarriak izan ohi ziren Aste Santuko elizkizun abestuak hiriburuko katedralean. Eta Pazko gaueko mezatan Apaiizgaitegiko eliza jendez lepo betetzen zen, Schola Cantorum-ari entzuteko.

Salaberri apaiiz berriak, musikaz gain, Nahitaezko (Prezeptiba) Literatura ere irakasten zuen, Latinoen prefektu-irakasleen taldera gehitua. Eta Sabinek gogoratzen duenez, fisika, kimika eta grekoa ere eman behar izan zituen sarritan. Angel Sukiak erretoregoa utzi zuenean, euskara ere irakatsi zuen..Gorago esan digu Sabinek biologia ikastea aholkatu ziotela. Eta aholkularia, hain zuzen, Peralta Gotzaina izan zen.

Behin baino gehiagotan joan nintzaion, nire musika ikasketetan aurrera egiteko baimenaren eske. Kontuan eduki behar da nik ez nuela artean inolako titulu ofizialik eta

13. Erroman abestu zuen taldeak 1906ko maiatzaren 20an, Pio X-ak Berriotxoako Balendin dohatsu egin zuenean.

klaseak emateko ofizialtasuna lortu behar nuelakoan nengoen. Peraltak, ordea, ezetz, nekien musikarekin nahikoa nuela eta. Leoncio Arabiotorre 1957an hil zenetik bere kargua behar bezala bete gabe zegoenez gero, biologia ikastera bidali nahi ninduen.

Sasoi hartako Sabinen ikasleek –Javier Cameno, Juan Ramon Gebara, Javier Ortiz de Guinea, Hendrike Knörr...– diotenez oso irakasle ona izan zen. Klaseak ahalik eta praktikoena izaten ahalegintzen zela azpimarratzen dute, teorizazio hutsetik ihes egiten bide zuelarik. Sabinen klaseak interesgarri eta erakargarriak zirela aitortzen dute, irakasle bezala ukitu goxoa ematen baitzien gai. Bi urtez, Fisika eta Kimika klaseak ere eman zituen, gai horietako ahalmen berezia zuela aitortzen duelarik. Eta uka ezin dakiokena ausarta izatea da, bere esperimenduekin jarraituz irrati-emisora berri bat martxan ipini zuelarik.

Don Jose Zunzunegi Apaizgaitegiko emisora indartsuaz baliatzen zen Ecuadorreko misiolariari mezuak bidaltzeko eta haiekin hitz egiteko. Euren arteko elkarriketetan sartu nintzen behin nire gelako aparailutik.

Aramaioiko mendi bazterretatik burutu ibilaldietatik naturarekiko identifikazio hertsia geratu zitzaion Sabini betiko. Barne muinetan errotua, ahaleginak eta bost egun ditu ingurugiroa alde guztietatik babesteko. Begirunez erabili izan du natura gaia bere lanetan, ingurumenaren zaintzarako dei harmoniatsua konposatu nahi izan balu bezala. Ereduarekin predikatzea ere jakin zuen, Apaizgaitegiko lur eremuan zuhaitzak landatzea eta loreak haztea izan baitzuen beste zaletasun handia, Javier Uriarte apaizkidearekin batera garatuta.

Bazuen Sabineke beste kezka bat, erraiak zulatzen zizkiona: euskara. Apaizgaitegiko elizkizunetan abesti bakar bat egiten zen euskaraz, “Agur Jesusen Ama”, alegia. Eta berari iruditu zitzaion gehitu egin behar zela kopurua. Luis Maria Larrea alde zeukan arren, zeharo kontra agertu zen Angel Sukia erretorea. Hala ere, aurrera egin zuen musikako prefektuak eta Aita Madinaren Abe Mariaren bat eta Aita Donostiaren beste abestiren bat ere sartu zituen euskal errepertorioan.

Garai hartan ere Gasteizko Brigida mojetan euskarazko meza bat egiten zen hilean behin. Artean Vatikanoko II Kontzilioa abiatu gabe zen baina Iñaxio Oñatibia eta Angel Arandia¹⁴ apaiz gipuzkoarrak ausartu egiten ziren meza hartan euskaraz mintzatzera hitzaldian. Sabinekin horren berri izan zuen bezain laster gehitu egin zitzaion bikoteari eta parte hartzen zuen euskarazko eukaristian. Sukia eta Peraltaeren erreakzioak ez ziren berandutu eta debekatu egin zioten Brigiden komentutik agertzea. Gertatu zen guztiz aurkakoa: Brigidetatik Erreparadoreetara igaro ziren mezak, eskaintza bikoiztuz. Erreparadoreetan, gainera, Pastoral eta Liturgiako Zentro bat eratu zuen Iñaxio Oñatibiak eta bere zuzendaritzapean eliz abesti berriak sortzeko taldea osatu zen, Luis Aranburu, Gasteizko Katedraleko organo jole zen Emiliano Ibargutxi eta Sabin Salaberriekin.

Vatikanoko II Kontzilioaren lehen ondorioekin areagotu egin ziren Gotzain eta Erretorearen eta Sabinen arteko desenkontrak.

Nik semaforoaren teoria erabili nuen. Zein den? Begira: semaforo gorri baten aurrean gelditu egin behar da, berde jarri arte. Baina bi minutu igarotzen badira eta gorri segitzen badu... zerbait ez dagoela ongi hasten zara pentsatzen. Hirugarren minutuan, aldiz, semaforoa oker dagoela zaude ziur. Eta beste aldera igarotzen zara,... hori bai, zuhurtziaz, kotxeren batek airetik eraman ez zaitzan... Nik ere horixe bera egin nuen. Peralta eta Sukia inmobilstak ziren, guztiz, eta aurrera jo nuen.

Vatikanoko II. Kontzilioak irekiera ekarri zuen eliz funtzioen antolakuntza aldatzeko. Tokiko hizkuntzei aukera eman zitzairen eta Euskal Herrian, beste hainbat toki elebidunetan bezala, batzorde bi osatu ziren, bata elizako testuak euskaratzeko, eta bestea testu horientzat musika egokitzeke. Hala, Iparraldetik Belloch-eko beneditar bat, Bizkaitik Antonio Linaza, Gipuzkoatik

14. Oñatibia aukeratu zuen 1960ko abuztuaren 28an Juan XXIII Aita Santuak Liturgiaren Batzorde Pontifizioarako aholkulari, Vatikanoko Kontzilioaren atarian. Arandia, bere aldetik, 1961era arte Fisika eta Kimikako irakaslea izan zen Apaizgaitegian; urte hartan Zestoako erretore izendatu zuten.


Jose Maria Zapirain, Nafarroatik Aurelio Sagaseta biltzen ziren, eta Arabatik... nor bidali? Peralta Gotzainaren iritziz, ez zen beharrezkoa inor agertzea... Araban euskaraz egiten ez zelakoan. Jose Maria Zirardak¹⁵ tarteko lanak egin behar izan zituen, Sabin Salaberriri baimena eman ziezaioten. Halakoxeak ziren gauzak duela berrogei urte inguru!

Batez ere Schola Cantorum-ekin burutzen ari zen lanari esker Sabinen izena Euskal Herri osoan hasi zen ezagun egiten. Eta 1962an antolatutako Euskal Herriko Otxoteen I Txapelketaren epai mahairako deitu zuten. Bat-batean, Francisco Escudero, Tomas Garbizu, Martin Lipuzkoa, Antxon Larrauri, Javier Bello Portu, Juan Arzamendi eta horien gisako musikarien artean zegoen eta horrek harremanen sarea handiagotu zion. Baita erantzukizunaren maila igoarazi ere. Sabineke garbi zuen musika ikasketetan barrena egin behar zuela, bere formazioa aberastearren.

Semaforoaren teoriari jarraiki, eta Peralta Gotzainak biologia ikastea aholkatu zion arren, jaramon handiagoa egin zion Sabineke Luis Maria Larrea irakasleari eta musika titulua ateratzea agindu zion bere buruari. Hala, Bilboko Goi Kontserbatorioan lortu zuen Pianoko titulua. Solfeoko bost urteak Gasteizko Kontserbatorioan azterketa bakar batean gainditu ondoren, Luis Aranburu maisuarekin landu zuen instrumentua eta 1967ko irailean eskuratu zuen titulua.

Gertaera berri batek goragoko bultzada adierazi zion, 1968an. Urte hartan, Arabako Aurrezki Kutxak abesbatza lehiaketa bat antolatu zuen, interpretatzaileentzat eta musika egileentzat. Sabineke enkargua jaso zuen Imanol Urbietarengandik, honek zuzentzen zuen Zarautzeko “Oleskariak” taldearentzat abesti bat prestatzeko, hitzak “Basarri” bertsolariarenak zirelarik. Aramaioarrak onetsi eta “Itsasoetan” kanta idatzi zuen. Epai mahaia garbi izan zuen zein zen garailea abesbatzen artean: “Oleskariak”, Salaberriren

15. Santanderreko Gotzain izendatu zuten 1968ko uztailean eta urte bereko azaroan Bilboko Administrazioa Apostoliko.



kantarekin. Baina egileen kasuan estu samar ibili bide ziren epaileak, beste lehiakideen artean Jose Maria Sanmartin –bere “Suite arabarra”-rekin Musika Sari Nazionala 1963an eskuratu zuena– eta Luis Aranburu baitzeuden. Eta epaileek lehen saria Sanmartin, Aranburu eta Salaberriri, “ex-aequo” ematea erabaki zuten. Hau da, Sabineek bi sariak eskuratu zituen.

Errekonozimendu berri horrek zalantza guztiak ezabatu zizkion Sabini eta Luis Maria Larrea Apaizgaitegiko erretore berriaren eta Andres Ibañez eta Ixazio Oñatibiaren irakasle kideen aholkuei jaramon eginik, gorputz eta arimaz ekin zion musikako goi ikasketen karrerari. Horretarako Francisco Escuderoren eskuetan jarri zen Donostian eta bost urtez aritu zen armonia, kontrapuntu eta konposizioaren ezkutak dezifratzen.

Sabinek ez zuen, bestalde, bere formazio humanistikoa alboratzen eta uda batzuk aprobetxatu zituen Alemaniara joateko. Alemaneraz ikasteaz gain, kultura desberdineko zutabeak ezagutzeko parada eman zioten egonaldi haiek. Ulm, Emmerich eta Baden Württemberg-eko parrokia txiki batzuetan ordezkapenak burutzen zituen bitartean, sakon aritu zen hango jendearekin esperientziak konpartitzen zenbait adiskidiren bitartez, gerorako ere Euskal Herrian aplikatzeko lagungarri gertatu zitzaizkionak. Hiru urte jarraikiaz heldu zen estatu hartaraino bere 2CV-rekin, bertako giro intelektual askea arnas berri zitzaielarik. Izpiritua kargatuta itzultzen zen Euskal Herrira. Eta lagunek adi-adi entzuten zizkioten bidai haietako kontakizunak. Anton Polek dio:

Niretzat urte haietan Sabin zen askatasunaren pertsonalizazioa. Guk usaindu ere ezin genituen esperientzietaz mintzatzen zitzaigun bere estilo goxo eta zuzenean eta ametsetan jartzen gintuen.


Askatasun intelektualerako Alemaniako bidea poliziak moztu zion 1968an. Bilera baterako deia jaso zuen Sabineek Aita Isidoro Baztarrika Estibalizko beneditarraren aldetik. Euskararen egoera aztertzeke proposamena zen, eliz funtzioei egokitu ahal izateko. Eta Isidoro eta Sabine z gain Gasteizko jesuiten Jesus

Obrero ikastetxeko Aita Irigarai ere agertu zen Estibalizera. Programan bide ez zegoena da bilerara beste hiru gonbidatu ere agertu zirela, Antxon Iriondo, Gontzal Fontaneda eta Carlos Caballero, alegia, eta euskara ez ezik beste gai asko ere jorratu zen batzar hartan. Hiru haietako batek apunteak hartu zituen eta baita izenak idatzi ere, baina zehazkizun gutxierekin. Handik gutxira paper haiek poliziaren eskuetara erori ziren eta Sabin komisaldegira deitu zuten, paperetako “Padre Caballero de Aramayona”-ren batekin zer ikusirik izan ote zezakeen argi zezan. Argi eta garbi, apuntatzaileak ez zituen bildutako enortasunak ezagutzen eta izenak nahastu zituen. Bilera hartan egon zela aitortu ondoren, pasaportea kendu zioten Sabini.

Sabinek oso oroitzapen ona gordetzen du Apaizgaitegiko bere lankideei buruz.

